

Hitz gutxitan

Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela argitaletxeak mikroipuin lehiaketa antolatu du, zortzigarren urtez. Euskaraz ikasten duten Nafarroa osoko Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat da lehiaketa. Abenduaren 20rako aurkeztu behar dira lanak.

Ehun hitz. Ez gehiago. Hor-txe dago muga. Hamar le-
rro, gutxi gorabehera. Zaila
dirudi erronkak, baina po-
sible da. Posible da ehun
hitzekin istoriotxo bat jos-
tea. Posible da hamar lerrotan
ipuintxo bat kontatzea.

Zazpi urtez posible dela eraku-
tsi dute Nafarroako Lehen Hezkun-
tzako zein Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntzako ikasleek. Eta, posible
denez, aurten ere mikroipuin
lehiaketa antolatu dute Euskara
Kultur Elkargoak eta Pamiela argi-
taletxeak. Hauxe da lehiaketa an-
tolatzen duten zortzigarren urtea.
Nafarroa osoko ikastetxeetan
euskaraz ikasten duten Lehen
Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bi-
garren Hezkuntzako ikasleentzako
lehiaketa da. Eta azken urteetan A
ereduan diharduten ikasleek era-
kutsi duten ahaleginarengatik,
arlotan berezi bat prestatu dute
haientzat.

Zein da egitekoa? Ehun hitz di-
tuen istorio bat idaztea. Ehun hitz,
ez gehiago. Idazlanek euskaraz
egon behar dute, noski, eta beste
baldintza hauek ere bete behar di-
tuzte: jatorrizkoak izan behar
dute, argitaratu gabeak eta aurrez
lehiaketaren batean aurkeztu eta
saritu gabeak.

Abenduaren 20a izango da la-
nak aurkezteko azken eguna. Hiru
bide erabil daitezke lanak bidal-
tzeko: Euskara Kultur Elkargoak
Iruñean duen egoitzara eramanda,
posta arruntez bidalita edo posta
elektronikoz igorrita.

Idazlanean bertan ezin dira egi-

learen datuak agertu. Beraz, lanak
goitzen batekin sinatu behar dira.
Lana aurkezterakoan, goitzenare-
kin sinatuta bidaliko da idazlana,
eta, idazlanarekin batera, beste
gutun edo dokumentu batean ida-
tziko dira egilearen datuak: ikasle-
aren goitizena, izen-abizenak, adi-
na, maila eta eredu.

Posta arruntez bidaltzeko, hau-
xe da EKE-ko helbidea: EKE / Co-
medias kalea, 14-1 / 31.001 Iruñea.
Posta elektronikoz bidali nahi
bada, hauxe da helbidea:

mikroipuinak@euskarakultur.org

Lan guztiak bildu eta epaimahai-
ko kideek irakurri ostean, 2014ko
martxoan jakinaraziko dira irabaz-
leen izenak. Uste baino lan gehiago
jasotzen badira, irabazleen izenak
jakinarazteko eguna alda daiteke.

Orotara, lau lehen sari banatuko
dira: bi sari, D ereduko Lehen eta
Bigarren hezkuntzan; beste bi A
ereduko Lehen eta Bigarren hez-
kuntzan. Pamiela argitaletxearen
liburu sorta bana jasoko du irabaz-
le bakoitzak. Horrez gain, aurkeztu
diren lanen originaltasuna eta kalit-
atea gogoan izanik, epaimahaiko
kideek erabakiko dute zein ikaste-
txetan egingo den sari banaketa.
Mariasun Landa idazlea izango da
sari banaketako aurtengo gonbi-
datu berezia.

Lehiaketaren oinarriak zeha-
tza gozatu irakurtzeko edo edozein
zalantza argitzeko, begiratu
[www.euskarakultur.org/eus/
arauak-2013](http://www.euskarakultur.org/eus/arauak-2013) webgunean.

Hilabete geratzen zaizue orain-
dik ehun hitz aukeratu, eta istorio
labur baina ederra osatzeko.

